

**El Consejo Vasco del Voluntariado ha aprobado la siguiente declaración institucional con ocasión de la celebración del 5 de diciembre como Día Internacional del Voluntariado:**

La Asamblea General de Las Naciones Unidas, en su resolución 40/212 de 17 de diciembre de 1.985, invitó a los diferentes gobiernos a celebrar todos los años, cada 5 de diciembre, el Día Internacional de los Voluntarios para el Desarrollo Económico y Social.

En su declaración de principios sobre el Voluntariado, ratificada posteriormente entre otras en la Declaración del Milenio, la ONU destaca que *"el servicio prestado por personas voluntarias ha formado parte de casi todas las civilizaciones y las sociedades. Se define, en su sentido más amplio, como la contribución que hacen hombres y mujeres al llevar a cabo acciones sin ánimo de lucro, no remuneradas y de naturaleza no profesional encaminadas a procurar el bienestar de su vecindad, su comunidad o la sociedad en su conjunto. Adopta muchas formas, desde las costumbres tradicionales vinculadas a la ayuda mutua a las respuestas de carácter comunitario en época de crisis, pasando por las iniciativas de vanguardia dedicadas al auxilio social, a la resolución de conflictos o a la erradicación de la pobreza"*.

En Euskadi valoramos el voluntariado como un componente imprescindible de toda estrategia dirigida a la reducción de la pobreza; el desarrollo sostenible; la promoción de la salud, la educación, la cultura y el deporte; la prevención y gestión de los desastres y la integración social y, en particular, la superación de la exclusión social y de toda forma de discriminación.

El Día Internacional del Voluntariado es una fecha adecuada para recordar a las miles de personas que desarrollan altruistamente acciones de voluntariado en la sociedad vasca. Es una excelente ocasión para reafirmar nuestro apoyo diario a los voluntarios y las voluntarias, reconociendo su valiosa aportación al desarrollo económico, social y cultural. Y es también una jornada para promover todas las formas de voluntariado como actividad solidaria que beneficia a niños, jóvenes y mayores, a personas con discapacidad, a las minorías, a los inmigrantes, en definitiva, a todos los sectores de la sociedad.

## **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak ondorengo adierazpen instituzionala onartu du, abenduaren 5ean Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta:**

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1985eko abenduaren 17ko 40/212 erabakian, gonbidapena egin zien estatuetako gobernuei urtero ospa zezaten, abenduaren 5ean ospatu ere, Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Boluntarioen Nazioarteko Eguna.

Boluntariotzaren printzipioei buruzko adierazpenean —gero ere berretsita baitago Milurtekoaren Adierazpenean, besteak beste— Nazio Batuen Erakundeak honako hau azpimarratu du: *"Boluntarioek emandako zerbitzua ia-ia zibilizazio eta gizarte guztien baitakoa izan da. Zentzu zabalean definituz gero, gizonezkoek eta emakumezkoek egindako ekarpena da, irabazi-asmorik gabe, dohainik eta izaera profesionalik gabe burututako ekintzetan gauzatzen dena, auzoen, komunitatearen edo, oro har, gizartearen onura lortzeko xedez. Era askotara agertzen da, elkarlaguntzari lotutako aspaldiko ohituretatik hasi, eta krisialdiei ematen zaizkien erantzun komunitarioetaraino, gizarte-sorospena, gatazkak konpontzea edo pobrezia erauztea xede duten abangoardiako ekimenetan barrena".*

Euskadin, ezinbestekotzat jotzen dugu boluntariotza, ondoko helburuak dituen estrategiaren nahitaezko osagarri: pobrezia gutxitzea, garapen jasangarria, osasuna, hezkuntza, kultura eta kirola sustatzea, hondamendien prebentzioa eta kudeaketa, eta gizarteratzea, eta bereziki, gizarte-baztertzea eta diskriminazioa, edozein motatakoa dela ere, gainditzea.

Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna garai egokia da euskal gizartean boluntario-ekintzetan musu-truk diharduten milaka pertsona horiek gogoratzeko. Aukera aparta da boluntarioei egunero-egunero ematen diegun laguntasuna berretsi, eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari egiten dioten ekarpen baliotsua aitortzeko. Eta boluntariotzaren era guztiak bultzatzeko eguna ere bada, haur, gazte, heldu, ezindu, gutxiengo, etorkin eta, hitz batez, gizarteko sektore guztiei mesede eta onura dakarkien elkartasunezko jarduera baita.